

Frantziako Konstituzioa aldatzea aholkatu du Estatu Kontseiluak


Babes politikoaren erabilpena mugatzearekin ados da organu hau

Frantziako Estatu Kontseiluak herenegun erabaki zuenez, Konstituzioaren legebidezko aldaketa egin behar da herri honi babes politikoa eskatzen dioten batzuei uko egiteko eta Schengengo akordioek finkatu zutenarekin egokitzeko. Azken garaiotan Frantzian eztabaida piztu duen gai honi irtenbide bat emateko, Edouard Balladur Gobernuburuak Estatu Kontseiluaren epaiera jo zuen.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Estatu Kontseiluko epaileek iritzi diotenez, Frantziako Konstituzioaren aurre-hitza ez da aldatzerik izango baina Europako Batasunerako Ituna zehazten duen 4. artikuluan estatukideen arteko elkarlaneraz babes politiko eskaerei erantzun hitzartua eman beharko zaie. Horretarako, Legebiltzarrak eta Senatuak, modu berean, ontzat hartu beharko dute aldaketa hori, bakoitzak bere aldetik lehendabizi eta, bigarren urrats batez, Kongresuaren batzar batean.

Errepublikaren lehendakariak ez balu bide honekin bat egingo, erreferenduma egin liteke. Alabaina, François Mitterrandek behin baino gehiagotan aditzera eman du honelako gai minbera bati dagokionez, erreferendum bat abian jartzea ez zaiola batere egoki iruditzen. Berak nahiago zukeen, Konstituzioaren aldaketa administratibo mugatu bat



Estatu Kontseiluak bat egin du Charles Pasquaren asmoekin.

AP

baina aukera hau baztertu dute Estatu Kontseiluko epaileek.

Babes politiko eskaerei dagokien, Konstituzioaren aldaketa beharrezko eztabaida, Charles Pasqua Barne ministroak Frantziako lurraldean atzerritarren kopurua mugatzeko xedean moldatutako legegaiari Batzorde Konstituzionalak egin zion zuzenketak piztu zuen. Konstituzioak babes politikoa eskatzen duten guztiei, OFPRak bere hitza eman arte bederen, asilo ematera behartzen ditu agintariak. Batzorde Konstituzionalaren arabera, jarrera hori nahitaezkoa

da, babes politiko eskaeraren egilea Schengengo akordioak ontzat hartutako beste herri batetik haizatua izanikan ere.

GIZA ESKUBIDEEN ZAINZAILAK

Erabaki honen berri jakin orduko, Pasquak aditzera eman zuen Konstituzioa aldatu beharko zela, Schengengo akordioak aplikatu nahi baldin baziren. Horiek horrela, arazoa epaitzeko gisan, Balladur gobernuburuak Estatu Kontseilura jotzea erabaki zuen irailaren 7an eta auzitegi goren honi «Parlamentuak bide al du Konstituzioa-

ren aldaketa mugatua finkatzea, Schengenekin egokian izateko gisan?» galdera egin zion.

Herenegun emandako erantzunak, Pasqua eta gehiengoaren zati handi bat poztu egin baditu, giza eskubideen alde diharduten elkarteak, ordea, oso kezkatuta utzi ditu. MRAP, arrazismoaren aurka ekiten duen mugimenduak berehala adierazi zuenez. «Frantziari ez zaio gehiago bide, babes emaile herri bezala azaltzea». Julien Dray, giza eskubide kontuez arduratzen den diputatu sozialistak, berriz, «berrikuste laido garria» salatu egin zuen.

JULIAN MARTIN-EFE



Bost atxilotu Juan Carlos I.ari txistu egiteagatik

Poliziak bost gazte atxilotu zituen atzo Bartzelonan Juan Carlos I. Espainiako Erregeari txistu egin ziotelakoan. Errege-erregin espainiarrak Bartzelonako Hiriarren Domina jaso ondoren udaltxeko balkoira irteten zirenean jaso zituzten independentisten txistuak, beste zenbaitzuek txalo egin zuten bitartean. ERCK deiturik, gazteek 'Katalanok ez dugu erregerik' eta 'Errepublika demokrazia da' zioten pankartak zabaldu zituzten. Hogeiren bat gazteri nortasun agiria eskatu zuten ere Poliziak.

LABURREAN

ABBk 1.266

langile kaleratuko ditu Espainian

ABB multinazional suediarrek 1.266 langile kaleratuko dituela jakinarazi zuten atzo beren lantegietako enpresa batzordeei. UGTren arabera, iragarpen honekin «ABBko zuzendaritzak presio egin nahi du alde zaurerako erretiroei eta langileen erregulazioari buruz irekitako negoziazioak amaitzeko». UGT prest dago erregulaziorako, ABBren erabakiak negoziazioa zailduko duela uste duen arren. CCOO ez du kaleratzerik onartzen.

DEBATE

bakarra eta galegoz nahi du Fragak

Datorren urriaren 17ko hauteskundera begira, Manuel Fraga Galiziako lehendakariak telebistan «debate bakarra, Galiziarentzat eta galegoz» besterik ez duela onartuko ziurtatu zuen atzo. Debate horretan Antolin Sanchez Presedo sozialisten lehendakariak besterik ez izatea nahi du Fragak, alderdi horrekin besterik ez delako eztabaidaren gora-beherak eztabaidatzen.

GAZTELERAREN

alde 300 katalan bildu dira Madril

Lau urtetik hamabi bete arte katalanera ez besterik ikasteko neurriaren aurkako 300 lagun —haurrak gehienak— bildu ziren atzo Madrilgo Hezkuntza Ministerioaren aurrean. Manifestariak kexu ziren «gaztelanierazko klaseak» jasotzerik ez dutelako eta Generalitateak gaztelaniera «baztertu egiten duelako».

KANARIETAKO

Gobernua krisian dago

Ildefonso Chacon Kanarietako Herrilari, Etxebizitza eta Uretako kontseilariak bere dimisioa aurkeztu zion atzo Manuel Hermoso lehendakari nazionalistari. Hermosok Felipe Perdomo Arrantza eta Garraio sailburua Gobernutik kanporatu zuelako dimittitu du Chaconek.